

ALTZA



1.998 ko Abuztua- Iraila • Altzako Herri Batasuna • Dohainik • 1.Urtea • 2.Zenbakia

Txalaka: Gure txokoak hamaika urte bete ditu



Inaugurada la sociedad «Txalaka» en el barrio donostiarra de Altza.—

11 urte igaro dira Txalaka Elkarteak sortu zenetik. Urte hauetan guztietan Txalakak eman digun babesa eta aukera desberdinak gutxitan baloratu izan ditugu bere neurrian. Belaunaldi berriak agertzen ziren heinean, bere lehenengo asmoak, helburuak, arazoak... denbora berrietara moldatzen joan dira eta Txalaka berri bat osatzen joan da, Altzarekin batera egokituz.

11 urteetan gauzak asko aldatu dira, baina ezinbestekoa da atzera begiratzea daukaguna bere neurrian baloratzeko. Zergatik sortu zen Txalaka? Zein kointurnan? Zeintzuk ziren asmoak? Zeintzuk arazoak? Zergatik Larratxon eta ez Harrian, Herreran edo Altzagainan? Txalaka Ezker Abentzalearen bilgunea eta txokoa izan nahi zuen, Euskal Herriaren aldeko elkarteak. Helburu horrekin inauguratu zen.

Editoriala

Lehenengo alean komentatzen genuen zein garrantzitsua den gure arteko komunikazioa, eta esaten genuen ere barne boletín hau helburu horrekin jaiotzen zela, estatutuaren pentsamendu bakarrari aurre egiteko eta gure arteko informaziotik Altza eraikitzeko. Komunikabide propioak, gezuraren kontrako tresnak. Momentu honetan Egin egunkaria eta Irratia zentsuratu eta akatu dutenean helburu honen garrantzia biderkatu egiten da gure altaboz nagusia ixilarazi dutelako. Estatuaren estrategia gure etsipena eta isolamendua bilatzen badu, kolpe honekin errazago duelakoan dago. Baina zeharo oker daude, herri bati ohoa ezin zaiolako itxi. Eta jadanik hau bezalako komunikazio tresna berriak martxan jarri ditugulako. Horregatik inoiz baino gehiago zabaldu behar dugu tresna hau, HBko jarraitzaileen artean.

Bestalde ale honetan bi berrikuntza nagusi izango dira. Aurrerantzean banaketa ahalik eta azkarren egiteko, korreoz egingo dugu, eta ondorioz "harpide" bakoitzaren izena eta helbidea beharko dugu. Bestalde, hasiera batean boletín hau soilik euskaraz kaleratzeko asmoa bagenuen ere, komunikazioa helburua izanik, hizkuntzak ez luke trabarik suposatzen behar, eta ondorioz, bigarren ale hau ere erdaraz kaleratuko da. Espero dugu egiten dugun esfortzu hau baliagarria izatea. Zuen aldetik soilik espero dugu boletín zabalitzea, irakurtzea eta aporteratzea. Badaukizue non gauden Gogoratu joan eta etorria izango duen komunikazioa izango dela. Bitartean lanean jarraituko dugu boletín tresna eraginkorra bihurtzeko.

Altzako Herri Batasuna

Josu Lonbide:
Presoen
manipulazioa-
ren adibide bat

3.orrialdea



HITZ EGIN


Plataforma Altzan:
Adi konbokatorietara

Euskal
selektzioaren
aldeko lana
Altzan

4.orrialdea

Abertzaleon txokoa

➤ Txalaka izena sagar mota baten izena da eta hasieratik egokia ikusi zen.



11 urte atzera jo beharko genuke Txalaka sortu zenean panorama politikoa zein zen birgogoratzeko. Txalaka 1987.ko otsailean inauguratu zen. Duela 2 urte Zabalza hil zuten, OTANen sartu berriak eta urte hartan bertan Txomin Iturbek bizitza galtzen du, ondoren omenaldi jendetsua emanez. Haur eskundeetan HBk igoera handia du eta era berean frantziar estatutuaren kolaborazioa areagotzen da. Hipercorreko leherketan 15 pertsona hilik suertatzen dira, poliziak ETaren desalojo deia muzin egin ondoren. Bi urte beranduago Argeleko elkarrizketak emango dira. Koiuntura horretan sortuko da Txalaka. Helbu

ru zehatz batekin, toki bat elkartzeko eta EH-ren aldeko lana egiteko.

1987.an HB, Gestoras eta Komite antinuklearrak besteak beste egituratuak zuden. Hasieran, biltzeko toki desberdinak tartekatuz zituzten: Sta. Barbara lokal bat, Gazteleku elkartearen ingurukoak, jubilatuen etxea, Altza gainako udaletxea... Azken hau "Toki onena zen gure dinamika aurrera eramateko, baina gurdaren emaztea hil zenean utzi behar izan genuen". Hortik Hererara, Vallinaren atzekal-

dean zegoen eskolara, eta beranduago gazteleku izango zena. Hemen egonda lokal bat bilatzen hasi ziren. "Tarteka Bertsolarin zegoen bakailu almatzen bat erabiltzen genuen, izugarritzko usaia zegoen. Txoko bat behar genuen". Leku desberdinetan begiratu ondoren (Sta. Barbara, Gainako "Altza kafetegia"- onena zen baina oso garestia edota Herrerako "Ramontxo" etxe osoa eta "Txingurri"), azkenik Larratxon erostea erabaki zen, Herreran presentzia nolabait

ziurtatuta baitzegoen. Hori eztabaida nagusia izan zen eta Pako Mateak iritzi hori defendatu zuen. "Ian handia egin behar zelako, auzo berria zelako eta ausardiaz jokatu behar zelako". Lokala erosi eta asteroko batzarrak egiten hasi ziren. Loiolako eredu jarraituz Butx errefuxiatuak arlo ekonomikoa bideratu zuen. 86.ko jaietan barra bat jarri zen dirua ateratzeko. Bertan A. Cubillas, I.Lopez Riaño eta J.Agirre aritu ziren besteak beste. Urte t'erdiz zenbait lagun dirua aurreratu zuten obrei ekiteko. Bazkideak ahoz egin ziren eta J.L. Arozamenak lehen juntako partaideak dioen bezala: "Ian handia egin zen, arazo asko gaudit, baina ilusioz egin genuen".

Txalakari nola atera etekina

Ezker Abertzaleaz gain bada Txalakari etekin handia atera zion beste norbait. Bere garaian, Txalakako lokala 7,5 milioren truke erosi zen, baina zenbait hilabete lehenago, "Jehovako lekuko" batek lokal baten bila genbiltzala jakinik, lokal bera 4 milio truke erosi zuen. Beraz, 4-5 hilabeteetan 3 milio irabazi zituen.

Iritzia

Abertzaleon txokoa

Txalaka sortu zenean, batpat biltzeko leku bat bilatzen zen, propaganda egiteko, bilerak egiteko, Elkartea elkartzeko gune bezala. Hamaka urte hauetan Txalaka behar berrietara egokitu zen joan da. Lehenengo ereduak (kooperatiba) orain dugun eredu (elkarte kulturala) desberdintasun handia dago eta gure aurrean esparru zabal bat ireki zaigu. Aktibidade ezberdinak antolatzen ditugu urtean zehar: Santo Tomas eguna Larratxon (orain arte oso arrakastatsua), Bizaraingo erromerian taloen postua, Altza Gainako jaietan sagardo eguna, Larratxoko jaietan parte hartzen dugu (Zikiro jana, Xake txapelketa, txokolatada...) kontzertuak, ikastaroak (azkeneko E.Hko historia), hitzaldiak... Azken urte hauetan antolaketaren inguruan aldatuta batzuk eman dira talde ezberdinetan egituratuak: ekonomikoa, kulturala, txoko batzordea osatuz eta lehenengo junta ordezkatuak.

Bestalde, azpimarratzekoa da adin desberdineko jendea biltzen garela eta oso giro jatorria sortu dela. Aurrean ditugun proiektuak besteak beste kulturalak, txoko batzordea eta dekorazioa aldatzea lirateke. Azkenik, bazkide kopurua igotzea helburu garrantzitsuenetarikoa bat izanik animatzen zaituztegu bazkide egitera. Aukera desberdinak daude bakoitzaren gaitasun ekonomikoaren arabera. Txalaka Altzako abertzaleon txokoa da eta denon laguntza eta partehartzea funtsezkoa da.

Josune Nuñez (Txoko Batzordeko koordinatzailea)
Arantxa Hernandez (kultura taldearen arduraduna)

Manipulazioa eta intimidadearen bortxaketa

Ez da lehenengo aldia Espainiar hedabideetan Barne ministeritzaren zuzendaritzapean euskal preso politikoek intimidadea bortxatu eta manipulatu egiten dela momentuko interesen arabera. Ekainak 18an egunkari zein telebistetan bi presoek gutun pertsonalak erabili zituzten estatuak diseinatutako estrategia baten barne. Horietako bat Josu Lonbide Bidebietarra eta Txalako tabernaria izandakoa. Jarraian irakur dezakezue Josuk berak Txalakara bidalitako gutunaren traskripzioa eta nola bizi izan zuen manipulazio kapitulu berri hau.

(...) comunicaciones intervenidas y limitadas... y secuestradas, televisadas... me imagino que fliparais a colores el otro día con todo lo referido a mi terrorífica carta... ¿La historia es...surrealista!! ¡¡Y para mayor coña, si supierais como me enteré!! Imagináros la situación. Después de comer, estando en el txabolo con los otros dos konpas, de repente entra un social...y se empieza a descojonar y me dice: "Oye etarra (nombre genérico con el que se refieren por aca a todos los vascos seamos presuntos o no... je,je) ¡hay muchos Lonbide Lorente etarras, presos como tú!"...Le miro como las vacas al tren y le digo que no, que soy el único. Respuesta del susodicho social: "pues estás saliendo en Telemadrid y en otras cuantas más"...Y claro, ¡Descojono general! Y esto no fue sino el principio de un peregrinar de una docena de sociales con la buena nueva, todo ello ante mi cara...de gilipollas.(A esto añadido el comentario de media galería...un poco más y me hacen la ola...) Así me enteré, de que el burofax, último que había enviado a Kris (de prisión a prisión)... estaba siendo, ni más ni menos que televisado...En un primer momento te quedas flipadillo...pero según compruebas con tus propios ojos la historieta, empiezas a sentir otro tipo de sensaciones. La sensación que cualquiera de nosotros habíamos sentido desde la calle, al ver violada, saltada a la torera, el derecho a la intimidad de nuestros presos/as; ese asco que habíamos sentido al ver utilizadas, manipuladas, conversaciones, comunicaciones íntimas... con el único fin de servir a una determinada estrategia, la del estado, cuyo último fin es el de cerrando todas las vías a una solución democrática y cegado por la borrachera mediático-policia; quebrar, aplastar el movimiento independentista, y con ello sepultar el proyecto de construcción nacional para nuestro pueblo. Todas esas sensaciones... se acrecentan ¡esta vez nos ha tocado en propia carne! Aunque estaba dentro de las posibilidades, no hubiera pensado que escasos folios que, como todas las semanas desde que nos separaron, le escribía a mi compañera Kris, que todas esas hojas personales, llenas de intimidades, detalles íntimos, ánimo, cariño...acabarian siendo televisadas, radiadas, publicadas de forma interesada por las prolongaciones del Gabinete de Prensa del Ministerio de guerra o Interior, auto-denominados medios de comunicación (estatales en su mayor parte). La carta, os lo explico con la intención de introducir un mínimo dato objetivo, se iniciaba excusándome ante Kris por no haberle escrito en la fecha que pretendía hacerlo, el viernes, porque desde el punto de la mañana, una noticia, la noticia del asesinato de Ina. Por ello el burofax se iniciaba con una pequeña "aurkezpena"(de un par de párrafos) en los cuales le explicaba a Kris la sacudida tremenda de conocer una noticia así y más desde la cárcel (sin ninguna información real, sin poder conocer ninguna versión que no fuera el parte de guerra de las radios del sistema) el sentimiento que me había impactado la muerte de otra joven gudari... pues basándose en unas cuantas líneas sacadas de estos dos párrafos de un burofax de 5 hojas, configuraron la noticia, convenientemente filtrada, bueno "con el acompañamiento acostumbrado de "según ha tenido acceso la agencia tal a cartas de presos etarras"... "Ha tenido acceso" que no quiere decir más que el gabinete de prensa del M. de I. Les ha entregado las mismas con las correspondientes directrices... Noskill De esta manera y de forma sincronizada, los mismos medios que en su día silenciaron las torturas, vejaciones sexuales, y todas las salvajadas sufridas por nosotros durante la incomunicación...los mismos que silenciaron el relato de las torturas de Maite Pedrosa, Kris o Patricia, las vejaciones, las violaciones sufridas (por poner algunos últimos casos de los más de 80 en lo que va de año), esos mismos medios volvían no sólo a saltarse a la torera nuestra presunción de inocencia ("Los etarras...") sino a violar, ser cómplices de la violación de nuestra intimidad... medios de comunicación que no sólo se prestan a toda esta estrategia, sino que son parte de todo el engranaje de la cerrazón, del empecinamiento en la borrachera de la eficacia policia; de cerrar vías a la apertura de un proceso de paz, que solucionar de raíz las causas reales del enfrentamiento entre Euskal Herria y el estado (...)



HITZ EGIN
Plataforma Altzan

Hitz Egin plataforma sortu zen gure komunikabideek jasaten duten erasoei aurre egiteko. Urtetan zehar Eginen aurkako boikot instituzionala konstante bat izan da. Atutxak bere orrialdeak kriminalizatu izan ditu behin eta berriro, eta orain Frankoren semeek zentsuratu dute. Horregatik Hitz Egin plataforma inoiz baino beharrezkoagoa da, komunikazio berri bat eraiki behar baitugu. Altzan ere plataforma hau osatu da. Jadanik zenbait batzar burutu dira eta bertan premia nagusia markatu da: dirua lortzea. "Euskadi Información"en azaltzen den kontu korronte zenbakian aportazioak sartuz, eta hilabeteroko kuoten bitartez. Egini hilero kopuru bat emateko gerturatu zaitzete Txalaka Elkartera edo Euskadiko Kutxak Altzan dituen bulegoetara, behar den baimena betetzeko.

Adi egon Hitz Egin plataformak egingo dituen deialdiel

ESAIT: Euskal selekzioaren aldeko lana Altzan ere.

Azken hilabeteotan ESAITek Euskal Selektzioaren alde egindako lanak oihartzun handia lortu du. Ale honetarako ESAITeko partaidea den Aitor Garinekin hitzegin dugu, eta berak azalduko digu Altzan bertan selekzioaren alde egindako lana.

Altza eginez. - Agian oraindik ez dakiteneztat, komentatu zer den ESAIT.

Aitor Garin: - ESAIT iritzi eta lan taldea da, Euskal Selektzioaren Aldeko Iritzi Taldea hain zuzen. Gure lana, edozein kirol motan, Euskal Herriko Selektzioaren aldeko iritzia da, eta gero, iritzi hori aktibatu eta presioa bihurtu. Honekin lotuta euskal lizentziaren alde ere egiten dugu lan.

Altza eginez. - Nola hasi zinen horren inguruan lan egiten?

Aitor Garin: - Iazko Munduko Txirrindulari Txapelketaren inguruan, zenbait lagunei bururatu zitzaigun zerbait egitea. Euskal Herrian izango ziren txapelketa horiek eta gure selekzioa ikusteko aukerarik ez genuke izango, eta gainera, kanpoko proiektioari begira, hau Espainia zen. Pentsatu genuen zerbait egitea, eta hasieran Altzan bertan modu informalean eta gero serioago, zenbait bilera burutu genituen. Txirrindulari martxa zen gure asmorik ambiziosoena, eta horretan geundela beste jende bat ideia berarekin zebilela jakin genuen. ESAITekoak ziren. Beraiekin bildu eta amankomunean egin genuen apostu hura. Hortik aurrera ESAIT izan da bilgunea.

honetan lan egin nahi duen edozeinentzat guztiz irekia dago.

Altza Eginez. - Momentu honetan zein egoeran dago selekzioaren aldeko lana?

Aitor Garin: - Une interesgarri batean zantalzarik gabe. Gure lanaren presioari esker, Gasteizko Legebiltzarrean Kirol Lege berri bat adostu dute, eta bertan lortu dugu zenbait indar politiko -HB,EA, EAJ eta IU-, guk aurkeztutako zenbait emendakin onartzea. Honek esan nahi du, orain aitzakirik ez dagoela pausu praktikoak ematen hasteko. Horretan gaude, eta hurrengo kurtsuari begira helburu nagusi bat izango da kirol desberdinetan Federazioak euskal lizentzia atera eta bultzatzea.

Bestaldetik, konsziente gara lege horrek baduela arrisku bat: eremu baskongadista finkatzea. Arrisku hori ekiditzeko euskal lurralde guztietan lana eta presioa egin beharko da, eta guretzat lehenengo pausua hori izango da, ESAITek taldeak beste herrialdeetan sortzea eta indartzea. Orain nahikoa indar badugu Gipuzkoan eta zenbait harreman beste herrialdeetan, baita Iparraldean ere, baina hobeto artikulatu behar dugu hori guztia.

Agenda

- *Abuztuak 3, Abuztuak 18: "Altzako Amnistiaren Aldeko Batzordeak" hamabostero egiten ditu enkarteladak Herrikeran. (azaldu zaitezte)
- *Abuztuak 7.(ostirala) Altzako Herri Batasunaren Herri Batzarra - Afari merienda. Bertan besteak beste une politikoaren azterketa egingo da.
- *Abuztuak 8: 19:00etan Bulean zezen patzaren kontrako manifa
- *Abuztuak 9: "Ikurriña bai" manifa 17:30etan.
- *Abuztuak 14: Senideaken giza katea. 600 argazki.
- *Abuztuak 15: Orreaga gaur. 21:00etan trikitixa Elizondo tabernaren inguruan. 21:30etan erromeri bakia Eguzkitzako gainaraino. Txalaparta, afaria, trikitixa, dantzak, irrintziak, kontakizunak... Gaueko 12etan, balapartaren azken agurra eta triki poteoa Harriatik.
- *Abuztuak 18: Preso eta Errefuxiatuen eguna.
- *Abuztuak 18: Omenaldia Mortansen.

- *Irailak 11: XX. urteurrena dela eta afari tertulia Txalakan.
- *Irailak 20: Bilbon HB.ren XX. Urteurrena.
- *Irailak 21: Hauteskunde Autonomikoen prekanpaina hasiera.
- *Irailak 27: Gudari eguna.

Altza iruditan

Argazkian azaltzen den zelaian polikiroldegiko 2. Faseari zegozkion igerilekuak azaldu beharko lirarteke. Altzako biztanleok tira-bira eta borroka handiei esker azkenik polikiroldegia eraikitzea lortu bagenuen ere, zenbait urte beranduago oraindik gure aldarrikapenak bete gabe daude, nahiz eta hauteskunde garaian betiko politikariek behin eta berriro zin egin 2.fase hau aurrera aterako dutela.



Egun hauetan inpresio handia sortarazi digun operazio errepresibo baten lekuko izan gara, zenbait sektore aurrerakoi eta abertzaleen artean ezinegona areagotu duena. Hamar abertzaleen atxiloketa eta gartzeleratzearekin amaitu den operazio polizial-juridikoak, eta Egin eta Egin Irratiko itxierak, komunikabide batzuen itxiera baino zerbait gehiago dira, eta P.Pren Gobernuak apostuaren barne enmarkatzen da, azken helburutzat mugimendu independentista desartikulatu eta desegitea delarik. Ondoko lerroetan gertatzen ari denaren azalpen bat ematen saiatuko gara.

PP gobernura iritsi zenean, Estatuak egoera jasanezina pairatzen ari zen: korrupzio eskandaloak, GAL aferaren inguruko filtrazio eta errebelazioak, Europar Batasuneko lehen bagoian sartzeko arazo ekonomikoak... eta honekin guztiarekin batera gero eta garbiago azaltzen zen Estatu autonomikoaren ereduaren porrota. Azken honek birplanteamendu berri bat eskatzen zuen behin betiko BNG, CiU edota PNV bezalako indarrak bereganatzeko.

Euskal Herrian berriz, Ezker Abertzaleak azken urteetan esfortzu handia egin du Bidart ondorengo egoera gainditzeko. Estatuak aprobetxatu nahi izan zuen egoera hura, efeko domino antzera Ezker Abertzalearen artean desmoralizazioa hedatzeko. Esfortzu handia egin da beraz, eta estrategia birmoldatu eta egokitu da, "KAS Alternatiba"tik "Alternatiba Demokratiko"ra pasatuz. Denbora eta egindako lanaren poderioz, gizartearen negoziazioaren beharra errotuz joan da, errepresioak soilik arazoa luzatzen eta gogortzen baitu, Euskal Herriak hitza izan behar duela, koiunturen gaineratik hitzegin behar dela... (azken hilabeteetan argitaratutako inkestak garbiak dira zentzu honetan). Bestalde sektore abertzale desberdinetan gaur egungo marko estatutarioa agortuta dagoela gero eta garbiago ikusten da, agindako apostua bukatu dela eta gainditu beharra dagoela, subiranotasun klabeetan ulertuta. ELA-LAB dinamika honen adierazle garbiena litzateke. Zentzu honetan EAJ.ko zenbait buruk egindako adierazpenak (Arzalluz: "Nahiago dut Stormont estatutoa baino") adierazgarriak lirateke. Estatutoa subiranotasun bidean zenbait sektore abertzalek egindako apostua zen, eta gaur espainolismoaren ikurra besterik ez da. Bakarrik eurek defendatzen dute (eta nola!)

Euskal Herria iritsi da 20 urte beranduago gurutzebide berri batera. Denok garbi ikusten dute eta denok ikusten dute posizioak finkatzeko garaia dela. Gaur, orain, ipurdia mugitu beharra dago, baina norantz?

Ezker Abertzaletik argi eta garbi Eraikuntza Nazionalaren alde apostu egin da eta horretarako elkarlanean ari da beste indar politiko, sozial eta sindikalekin, egoera berri bati bide emanez. Zentzu honetan ekimen desberdinak planteatu dira, hala nola Irlandako Foroa (zeintzuk dira gatazka konpontzeko klabeak), erlazio egonkorren berreskurapena (sektoreen arteko komunikazioaren beharra), minimoen proposamena (euskara, kultura, sozioekonomia, hezkuntza...) udalerrien batzarraren proposamena... hori guztia Alternatiba Demokratikoa lantzen eta garatzen.

P.Pk ere bere proposamena plazaratu du: "Proyecto común compartido" delakoa. Eta Mayor Orejak azaldu. Funtsean akordioak lortu nahi dituzte hizkuntza eta kultura mailan,

estatuarekiko erlazioak, barne egituraketarako eredia... Hau bere nahia da eta saiatzen ari dira euskal sektore desberdinak bereganatzen.

Azkenik, EAJk "Plan Ardanza" delakoa aurkeztu zuen, non euskaldunok erabakitzeke markoaren errespetoaz hitzegiten den., euskaldunon nahiaren errespetua, gauregungo egoera gainditzearen beharra, hitzegitearen beharra... hori guztia EAE barruan eta hasera batean Ajuria Eneako Paktukideen artean, ondoren dena prestatuta dagoenean Ezker Abertzaleari eskaintzeko (ez duzu pate hartuko, eta gero "o lo tomas o lo dejas")

Hauze litzateke orohar gaur egungo egoera. Ezker Abertzalearen saiakera gauzak beste estadio batera eramateko hasieran besterik ez dago, baina martxan da. Eta lehenengo emaitzak hortxe ditugu: Gasteizko legebiltzarrean akordioak, Foroko lehen bilerak, sektoreen arteko erlazioen "blindajea"... eta esfortzu hauek guztiak ilusioa eta kredibilitadea sortu dute beste sektoreengan. Pixkanaka-pixkanaka baina aurrera doa.

Eta honen aurrean P.P urduri dago. EAEn egoera jasaezina duelarik, Ezker Abertzalearen isolamenduan porrot egin eta gero, honek komunikazio guneak sortu dituela ikusten du, eta hauteskunde sindikal eta autonomikoen aurrean espektatiba onak dituela. Gainera PP ez da EAJren jarreraz fidatzen. Beraz, "Ermuko izpiritua"ren ondoren eta Mahai Nazionalaren gartzeleratzearen ondoren ez zuten inolaz ere egoera hau espero. Eta azeleragailua zapaltzea erabaki dute. Zenbait empresa abertzaleen kontrako operazioaren ondoren, Eginen kontra jo dute. Eta Gestoras eta AEKren kontrako kolpe berriak iragarri dituzte. Beldurra hedatu nahi dute abertzaleon artean, eta fase hau baldintzatu. Hori da helburua, errepresioaren bidetik eta beldurra zabalduz momentu honetan hartu beharreko erabakia baldintzatzea. Horretarako Ezker Abertzalea kolpatu eta desartikulatu behar dute, inolako prozesurik bidera ez dezan.

Zer ikusia du momentu honetan PPK "agintzea" bere Gipuzkoako zinegotziei herrialdetik joatea denboraldi batez. Datozen garaien seinalea.

Beraz garbi dago egoera honek Euskal Herriak bizi duen gurutzebidearen adierazle dela. Eta abertzaleon lanak fortzatu du gurutzebide hau, eta prest gaude transizio hau aurrera eramateko. Hauze da jarraitu beharreko ildo. Azken urteetako lanarekin jarraitu behar dugu, Eraikuntza Nazionalaren ildotik espazio berriak sortuz. Gure ideiak argi izanik, eskaini, demostratu zein den gure asmoa.

Jauzi errepresibo honen aurrean, gure indarrak batu behar ditugu Euskal Herriaren eraikuntza bideratu ahal izateko, sortu beharreko marko berri horretatik. Egin diezaiozun keinu PPK sortarazi nahi digun beldurrari eta gizartetik lan egin dezagun, inoiz baino indartsuago gure hizkuntzaren alde, gure sozioekonomiaren alde, gure hezkuntzaren alde, gure kulturaren alde, gure errepresaliatuen alde...

